

GIZA GORPUTZAREN MOLDAERA ARTIFIZIALA

Nahita egindako deformazioak, edertasun eta maila sozialaren isla

Egilea: Eli Astiasaran

Webgunea: www.gaiak.net

2013/05/26

Gizakiaren ezagutza eta bere gorputza ulertzea hertsiki lotuta daude. Azala, gizakiaren estalkia da; gorputza, munduan egoteko dugun bitartekoa, batetik bestera garraiatzen gaituena. Gorputzaren bidez, informazioa jaso eta eman egiten dugu, munduarekin elkarrekintzan egoten gara; gorputzaren bidez, identifikatu egiten gara, baita besteengandik bereizi ere.

Gure gorputza eraiki eta eraldatzeko gaitasuna daukagu gizakiok. Horrela, bizi garen eta inguratzen gaituen ordena natural eta sozialaren isla bilaka dezakegu gorputza bera.

Gizakiaren gorputzak itxura desberdina dauka, askotan, gizakiaren bizilekuaren arabera: altuera desberdinak, azal-kolore desberdinak, begien forma desberdinak... Aldaera horiek gure geneetan daude idatzita. Gizakiaren antzekotasunek eta desberdintasunek aniztasun biologikoa erakusten digute, baina baita aniztasun kulturala ere.

Gorputz formen bariazioak mundu kulturalari erantzuten dio hein handi batean. Hori, besteak beste, gorputza artifizialki moldatzeko ohiturarekin lotzen da. Horietako hainbat praktika aldi baterakoak izan ohi dira: belarri, sudur eta ezpainen perforazioa, gorputza margotzea... Beste aldaera batzuk, berriz, betiko izaten dira; hala nola, jaioberrien buruaren forma aldaraztea, hortzak mutilatzea, tatuatzeak, eskarifikazioak...

Alterazio horien asmoak eta esanahiak egiten dituen taldearen arabekoak dira: batzuk taldearen identifikazio-markak izaten dira; beste batzuk, ordea, gizarte-mailaren erakusle. Badira igarobide errituen parte direnak edo edertasuna helburua dutenak ere.

Burezurra luzatzearen praktika ohitura zaharra bezain zabaldua izan da. Munduko bost kontinenteetan topa ditzakegu garezurreko elongazioaren adibideak eta aztarnak. Buruko hezurak bi urteak arte oso elastikoak direla baliatuz, garezur-deformazioa bitarteko ezberdinekin presioa eginez lortzen zen. Bendak, faxak, masajeak, egurrezko moldeak... erabili izan dira. Kontinenteen artean harreman iraunkorrik ez zegoen garaietan, txoko ezberdinetan eta aldi berean praktika hori zer dela eta egiten zen azaltzeko ez du azalpenik aurkitu zientziak.

Egipton, burezurren alterazio artifiziuala faraoiei eta gizarte-maila altuko jendeari egiten zitzaien. Pertsonak autoritatez agindu eta bere herriaren patuaren jakituria ahalmena egokitzen zitzaizolako ustea zabaldua zegoen.

XVIII. mendeko Frantzian, esaterako, memoria handitzen zelako sinesmenagatik egiten zen elongazioa. Beste hainbat tokitan, hala nola, Ameriketako maia, olmela, tolsteka eta azteka batzuek arrazoi estetikoengatik luzatzen zuten kaskezurra.

Egun, Ozeaniako Vanuatuko Errepublikaren txoko bakartu batzuetan, buru deformazioak egiten dira. Han pentsatzen dute buru luzexka duten pertsonak azkarragoak direla, estatus altuagoa daukatela eta Ambat espiritutik gertuago daudela.

Buruaren forma luzatu beharrean, lepoa luzatzen dute "jirafa emakume" deritzenek. Karen edo Padaung tribuetako neskatoei eraztun pisutsu batzuk jartzen dizkiete lepoan, lepauztaia pixkanaka beheraka presionatuz eta lepo luzeagoa irudikatuz. Ohitura horren inguruko hamaika ikerketa

antropologiko egin badira ere, ez dago praktika horren zergatikoa baieztatzen duen teoriarik. Halaber, beste tribu batzuen esklabotza ekiditeko emakumeak itsustea, tigreen hozkada sahiestea... aipatu izan dira arrazoen artean. Padaung emakumeek, ordea, edertasuna islatzen duen ohitura kultural bat besterik ez dela diote. Egun, turismoa erakartzeko erreklamu eta diru-iturri bilakatu dira.

Emakume txinatarren oin txikiak beste adibide ezagun bat dugu. Neskatoei oinak bendetan biltzen zizkieten 4-6 urte zituztenetik, oinak haztea galarazteko: oin "perfektuek" 8-10 cm baino gutxiago neurtu behar zuten. Gizonezkoek ohitura erakargarritzat hartu zuten heinean, oinak lotzea ia klase sozial guztietara hedatu zen. Damen oin txiki eta finak edertzat jotzen ziren eta emakumearen mugimendua femenino eta dotore egiten zutela esaten zen, edertasunaren eta erotismoaren ikur bilakatu. Errealitatean, ordea, oin bendatuek familiaren eta bereziki senarraren mendeko bihurtzen zuten emakumea; kastitate eta gizonaren jabetzaren zeinu.

Edertzat zer jo daitekeen eta zer ez hausnartzeko irizpideak denboran zehar eta eremu geografikoen arabera aldatuz joaten dira. Lehen ederra zena jada ez zaigu ederra irudituko agian. Hemen ederra dena, han itsusitzat jo daiteke. Hala ere, aldaketak aldaketa, bada aldatu ez den zerbait: edertasunean sinesten dugu, baita edertasunak erotismoarekin eta balio sozialarekin duen harremanean ere. Gorputz atal batzuen forma zehatzek ederrago edota boteretsuago egin gaitzakete.

Aipatu praktikez gain, badira gorputzaren aldaera helburu duten eta espazio eta denbora oso desberdinetan barreatutako ehundaka adibide gehiago. Ispiluan begiratu eta jabetuko gara, espezie biokultural garen neurrian, gorputzaren eraikuntza eta aldaera gure existentziaren parte bat direla.

Ba al zenekien?

- Balin (Indonesia) nerabeen hortzak limatzeko erritua konfirmazio zeremonia bat da.
- Uzbekistanen, edertasuna edo prestigioaren goreneko ezaugarria urrezko hortzak dituzte. Bada urrezko hortzengatik ordezkatzeko, benetako hortzak erauzten dituenik ere.
- Tatuai hitzak jatorri polinesiarra dauka. Hizkuntza horren "ta" hitzetik dator, zeinak kolpatu esan nahi duen. Hezurren arteko talka esan nahi duen "tau tau" hitzarekin ere lotura du. Funtzio estetikutik harago, tatuajeak errespetu iturri ziren: geroz eta tatuaje gehiago izan gorputzean, orduan eta errespetatuagoa zen pertsona Polinesiaiko komunitateetan.
- Hainbat kultura afrikarretan, emakumeek eskarifikazioa (azalean ebakiak egitea) edertasun formatzat dute; gizonezkoek, berriz, indarraren sinboloa dela diote.
- XIV. mendean, Elisabet Bavariakoa erreginak eskote handiak jarri zituen modan. Batzuetan, emakumearen titiburuak agerian geratzen ziren. Titiburuak makillatu eta zulatu egiten ziren, eta batetik bestera urrezko kate bat jartzen zuten apaingarri.